



Sasiola

Mila Salterain

Bilduma: Narrazio Saila

Generoa: Eleberria

SALNEURRIA (BEZ bame): 19,50 €

ISBN: 978-84-9868-643-2

Formatua: 14 x 20,50 cm.


Orrialdeak: 298

Koadernaketa: paperezko azala

ARGITALPEN DATA: 2020ko azaroaren 3a

Hedabideentzako AURKEZPENA

2020ko azaroaren 13an



Sinopsia

XVII. mendean, Gaztelako koroa gudan zebilen hainbat erresuma eta herrialderekin. Alde herrialderekin. Alde batetik, bereganatutako lurraldeak koroapean mantentzeak gastu handiak eragiten zizkion. Bestalde, Ameriketako bereganatutako lurraldeak eta lur haiek ematen zuten aberastasuna profitatzeko zor handiak egin zituzten gaztelauk: ehun eta berrogeita hamar urteren bueltan, lau aldiz egin zuen porrot Gaztelako Errege Ogasunak.

Porrot egoera horretan, diruaren balioak etengabe beherantz egiten zuen, eta, beti bezala, herritar xumeek izaten zituzten galtzekoak.

Bizkaiko Artxibategi Historikoak gorde du 1674tik 1677ra bitartean luzatu ziren peskizen eta haien ondorengo epaiketaren oroimena: Bizkaiko Teniente Jeneralak Sebastian Atxa arrazolarra eta beste hain-bat herritar auziperatu zituen «sobre falsificación de moneda falsa de oro, plata y vellón de molinillo en la casa de “Acha” y en las cuevas del monte “Amboto”».

Zergatik eta zertarako ekin ote zioten herritar xume haiek dirua faltsutzeari hamabi urte luzean? Nondik ateratzen zuten txanponak faltsutzeko behar zen zilarra eta urrea? Baina beste zerbait da jakin-min eta harridura gogorrenak pizten dituen: ez du ematen faltsutzaileak aberastasunaren bitsetan bizi zirenik, errekiatu zizkieten ondasunak ez baitziren beste mundukoak...

Garai hartan, orobat, dirua faltsutzea Gaztelako koroarekiko traizioa zen, eta gogorrik izaten ziren zigorrak, Inkisizioak ezartzen zituenaren arabekoak. Adibidez: surtan erreta hiltzeko kondena...

Eleberr historiko peto-peto honetan, Mila Salterainek, bizi-bizi eta irakurlearen jakin-gosea etengabe piztuz, historiografiak askotan iristerik ezin dezakeen bihurgune eta zokoetan barneratzen da, sakon eta luze ikertu dituen gertaera harrigarri batzuen berri emateko, neurri berean kronika eta nobela den artelan honetan.

Egileaz

MILA SALTERAIN (Durango, 1955). Durangaldeko lantegi batean eman du bere lan-bizitza, 2020an erretiroa hartu duen arte. Hizkuntzei buruzko zaletasun errotua du, eta, ildo horretatik, hainbat itzulpenetan parte hartzeaz gain, toponimia eta lexikografiaren inguruko bilketetan ere ibili da, Abadiñoko eremuan gehienbat. Idazle den aldetik, bi eleberr argitaratu ditu honen aurretik: *Erresumaren ilusentia* (2014) eta *Azeri-dantza* (2017).